

EUSKARA ELEANIZTASUNEAN IRAKASTEN DUTEN ESKOLAK AZTERGAI: D EREDUKO GASTEIZKO BI ESKOLEN INDARGUNEAK IDENTIFIKATZEN

Tesiaren egilea: Beñat Garaio Mendizabal

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila/Institutua: ELEBILAB ikerketa taldea, Letren Fakultatea

Doktorego-programa: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

jakintza-arloa: Soziolinguistika, Hizkuntzaren Soziologoa, Psikolinguistika

Tesi-zuzendaria: Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi

Tesiaren laburpena:

Azken 40 urteetan oso emaitza onak lortu dira Euskal Autonomia Erkidegoan ikasleen euskalduntzearen datu orokorreari begiratzen bazaie. Hala ere, euskararen ezagutzaren gorakadak ez du euskararen erabilera areagotu (Soziolinguistika Klusterra, 2017) eta, hori gutxi izango balitz, ukaezina da azken hamarkadako hezkuntza-lorpenen emaitzetan jaitsiera etorri dela hainbat adierazletan, esaterako, ikasleen euskarazko gaitasuna (ISEI-IVEI, 2016). Euskararen biziberritzearekin erabilitako irudi bera erabiliz, esan liteke D eredia edo euskarazko murgiltze-eredua bidegurutze batean dagoela.

Izan ere, irakaskuntza-erronka berriak agertu dira eta horiek sakon ezagutu eta kontuan izatea ezinbestekoa da euskararen irakaskuntzaren eta eleaniztasunaren tratamenduan (Ortega, 2017). Hori horrela, testuinguru erdaldunetako eskola-komunitateetan jatorri soziokultural anitzeko ikasleak biltzen dituzten eskoletako lorpenak sakonago ezagutu nahi izan dira tesi honetan, eta bi ikuspegitatik egin nahi izan da, gainera. Alde batetik, eskola-komunitateko hainbat kideren hizkuntza-jarrerak aztertu ziren galdetegi bidez, eta, bestetik, ikasleen ahozko kontaketarako gaitasuna ikertu zen ipuin-kontakteta erabiliz.

Hizkuntza-jarrerei dagokienez, ikasle, senitarteko, irakasle eta aisialdiko hezitzaileek jarrera onak dituzte euskara, gaztelania eta ingelesarekiko eta Gasteizko eta eskola-komunitate hauetako beste hizkuntzekiko, bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki. Erantzunak ez dira homogeenak, hala ere, eta joera batzuk ikusi dira emaitzak taldeka aztertuz gero. Edonola ere, aztertu diren eskolek euskara erdigunean duen hizkuntza-aniztasunarekiko hizkuntza-jarrera onak orokortzeko gaitasuna dute eta azpimarratzeko moduko lorpena da gaur egun dauden baldintzetan.

Ahozko hizkuntzari dagokionez, eta kontuan hartuta, aztertutako ikasle gehienentzat euskara H2 eta H3 hizkuntza dela eta haien egunerokoan euskara erabiltzeko denbora eta eremuak oso urriak direla, haurrek euskarazko gaitasun egokia erakutsi zuten. Maila handiko kontaketak jaso ziren, maila apalagoko

batzuekin batera eta, oro har, esan liteke eskola hauek euskararen irakaskuntza bermatzen dutela, alor batzuetan zer hobetua identifikatu zen arren. Halaber, ipuin-kontaketa tresna baliagarria izan da ikasle horiek zenbat dakiten ezagutzeko eta aldi berean ezagutza hori handitzeko eta lantzeko.

Horrenbestez, erreferentziazko ikerketa orokorretako beheranzko bilakaera eta azken baieztapenen ezkortasunaren aurrean (bai hizkuntza-jarreretan, bai euskararen lorpen-mailetan) eta baldintza zailetan egon arren, lekuan-lekuan eta hainbat eskola komunitatetan aurrerapauso eta emaitza on asko daudela ikusi da tesi honetan, aniztasuna dagoen eskola-testuinguruetan euskararen aldeko jarrerak eraiki eta euskararen ikaskuntza lortzeko bidean. Erronka batzuk eta sakontasunez aztertu beharreko elementu batzuk identifikatu arren, lan honek hainbat ebidentzia eskaini eta zenbait ekarpen egin ahal izan dizkio aniztasunean euskara biziberritzen duen hezkuntza-komunitateari.